

Pasaiaiko Udalak udal haur eskola zerbitzua bertan behera uzteko hartu duen erabakia okerra da LABentzat

Prentsaren bidez jakin du LABek Pasaiaiko Udalak eskaintzen duen Lilitegia udal haur eskola zerbitzua bertan behera uztea erabaki duela, EH Bildu eta Podemosen bozkekin. Pasaiaiko haur eskola zerbitzu hau, lizitazio baten bitartez bertako ikastolak ematen badu ere, udal zerbitzu publiko bat da, hemendik aurrera Pasaiko jendearteak udaletik jasoko ez duena.

Udalak hartutako erabaki hau guztiz okerra da LABen ustez, udalak eskaintzen zuen zerbitzu publikoak murrizten dituelako, eta sindikatuak dei egiten dio udalari hartutako erabakian atzera egin dezan.

LABen iritziz, udal eskumena den eta udaletik bermatzen den zerbitzu bat ezin da bertan behera utzi, horrek sortzen duen kaltearekin. LABen iritziz, 0-3 zikloa udal eskaintza publiko bateratuaren bitartez eskaini behar da, eta tresna desberdinak daude horretarako. Adibidez orain arte zerbitzu hori kanporatuta ematen egon diren langileak udaleko langileak bilakatuz, udala eta ikastolaren artean titularitatea partekatuz, udala haur eskolaren titularitatearen jabegoaren parte izanik eta honen kontrol publikoa bermatuz, edo Lilitegia haur eskola Pasaiaiko Karmengo Ama haur eskola bezalaxe, Haurreskolak Partzuergoan integratuz, LABek lan-hitzarmenean jaso zuen bezala langileen subrogazioa bermatuz, hau da, orain zerbitzua ematen ari diren langileak partzuergoko langile bilakatuz.

LABek udal eskaintza publiko bateratu berria proposatu eta borrokatuko du 0-3 ziklorako, Haurreskolak Partzuergoa ardatz izango duena, eskaintza publiko bateratuan beste udal haur eskola publikoak edota titularitate partekatua defendatuko dituen moduan.

Pasaiaiko Udalak hartutako erabakia LABek eraiki nahi duen Euskal Eskola Publiko Komunitarioaren kontrako norabidean doa, eta sare publiko berri bakar eta deszentralizatua eraikitzen hasteko aukera galdua da.